

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	OSTATUETAKO SUKALONDOAREN HORNIKUNTZA ETA ANTOLAMENDUA	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0038		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Ostatatzea.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ostatuetako solairuetako oinarritzko lanak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Ostatuetako logelen eta zona komun en txukunketa.	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ostatuetako solairuen eta zona komun en garbiketa eta prestaketa	Iraupena	60
	Bezeroarentzako arreta ostatuetako solairuen garbiketari	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0706_1 gaitasun-ataleko LB1 eta LB7 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ostatatze-establezimenduetako formularik ohikoenak deskribatzea, eta egitura, funtzioak eta solairu-sailaren dokumentazioa identifikatzea.

- E1.1 Ostatatze-formulak sailkatzea eta zehaztea, establezimendu-motaren, edukieraren, kategoriaren eta kokalekuaren arabera eta ematen dituzten zerbitzuen arabera.
- E1.2 Solairuen eremua osatzen duten zonak bereiztea eta sailaren funtzioak eta ezaugarriak adieraztea.
- E1.3 Solairuen eremua lanposturik adierazgarrienak deskribatzea, eta haien funtzio nagusiak eta haien arteko erlazioak aipatzea.
- E1.4 Ostatatze-establezimendu baten barruan solairuen sailak beste sail batzuekin dituen harremanak identifikatzea.
- E1.5 Logelak eta eremu publikoak garbitzeko eta prest jartzeko jardueretan erabili ohi diren dokumentuak identifikatzea eta betetzea: zereginak kontrolatzeko fitxak, kontsumoak kontrolatzekoak, logelako edaritegia kontrolatzekoak, bezeroen arropa garbitegira bidaltzekoak, materialak eskatzeko txartelak, gelazainburuari materiala eskatzekoak eta guardiako zerbitzariaren lan-partearak, besteak beste.
- E1.5 Solairuen eremuko langileei dagozkien kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:
 - Ostatatzearen eremuko lantaldeetako kide bakoitzaren erantzukizun-mugak, funtzioak eta zereginak definitzea.
 - Lanbide-jarduera adierazgarriaren lan-denborak ebaluatzea.
- E1.6 Antolamendura egokitzea, eta, horretarako, solairuen sailean integratzea eta enpresaren barne-arauak eta prozedurak errespetatzea.

A2: Solairuen eremuko izakinen hornikuntza, kontrola eta inbentarioa egiteko teknikak aplikatzea.

- E12.1 Izakinak jasotzeko, biltegitratzeko, barne-banaketa egiteko eta bidaltzeko administrazio-prozedurak azaltzea, eta sortzen diren dokumentuen funtzioak eta eskakizun formalak zehaztea.
- E12.2 Izakinak sailkatzeko eta kokatzeko gehien erabiltzen diren irizpideak azaltzea.
- E12.3 Gehien erabiltzen diren inbentario-motak deskribatzea, eta haien ezaugarriak eta xedea azaltzea.
- E12.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan:
 - Beharrezko produktuak, tresnak eta makinak hautatzea.
 - "Garbiketa-orga" eta "zerbitzari-orga" muntatzea, eta mihiseriaren, garbiketa-produktuen, erabilera-elementuen eta produktu osagarrien kontrola egitea.
 - Biltegia eta sukaldondoa antolatzea, eta txukun eta garbi mantentzea, eta tresnen, arropen eta materialen stockaren maila kontrolatzea, ezarritako prozeduren arabera.
 - Izakinen inbentarioak eta galeren erregistroak doitasunez eta argitasunez egitea eta eguneratzea, ezarritako datetan, ordutegietan eta denboretan, finkatutako jarraibideen edo prozeduren arabera.
 - Beharrezko dokumentazioa betetzea, hierarkiako nagusi hurrenak inbentario-kontrolen emaitzak egiaztatu ahal izan ditzen.
- E12.5 Stock egokia, gutxieneko stocka eta stock-haustura kontzeptuak zehaztea, eta haien kalkuluan eragiten duten aldagaiak identifikatzea.
- E12.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, biltegia mantentzea eta faltak osatzea, alde zuzenetik finkatutako stockak betez eta produktuen iraungipena kontrolatuz.
- E12.7 Solairuen eremuko barne-hornikuntzarako erabiltzen diren dokumentazioa interpretatzea eta betetzea.
- E12.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, biltegitratzeko prozesuan sortu eta detektatutako anomaliak jakinaraztea, eta anomalia horien eraginpean dauden produktuak baztertzea, produktuen iraungipena kontrolatuz.

EI2.9 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, salgaiak jasotzeko, biltegitratzeko eta banatzeko prozesuetan parte hartzeak eskatzen duen erantzukizunez eta zintotasunez jardutea.

EI2.10 Izakinen kontrolari eta barne-hornikuntzari buruzko lan-aginduak interpretatzea eta gauzatzea, eta norberaren lanaren erantzukizuna hartzea.

EI2.11 Norberaren lan-eremua behar bezain garbi eta txukun mantentzea.

Edukiak

1. Ostatuetakoko solairuetako zerbitzaria eta haren saila

- Ostatu turistikoak eta ez-turistikoak.
 - Ezaugarriak.
 - Motak.
 - Sailkapena
 - Sailak.
- Solairuen saila.
 - Jarduerak
 - Ezaugarriak.
 - Helburuak.
 - Sailen arteko harremanak eta eremuak.
 - Dokumentuak.
- Hoteleko logela: motak.
- Hotelak ez diren entitateetako solairu-kudeaketaren berezitasunak.
 - Ospitaleak eta klinikak
 - Hirugarren adinekoentzako egoitzak
 - Ikasleentzako egoitzak
 - Turismokoak ez diren beste ostatu batzuk.
- Solairuetako zerbitzaria.
 - Haren egitekoen deskribapena.
 - Uniformetasuna.
 - Deontologia profesionala.
 - Lanaren plangintza.
 - Erakundean eta lantaldean integratzea.

2. Solairuen eremuko izakinen hornikuntza, kontrola eta inbentarioa

- Izakinak jasotzeko, biltegitratzeko, barnean antolatzeko eta bidaltzeko administrazio-prozedurak.
- Izakinen sailkapena eta kokapena.
- Inbentario-motak.
- Kudeaketa-prozedurak aplikatzea.
- Biltegian izakinak mantentzea eta faltak osatzea.
- Garbiketa-orga eta zerbitzari-orga muntatzea.
- Biltegiaren eta sukalongoaren antolamendua.

3. Kalitatearen hobekuntzan parte hartzea

- Kalitatea ziurtatzea.
- Inputak kontrolatzeko eta prebenitzeko jarduerak, eta emaitza akastunak saihesteko prozesuak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ostatuetakoko solairuetako oinarritzko lanak